

ERDI AROA EUROAPAN**1. TOMAS AKINOKOA: JAINKOAREN EXISTENTZIAREN FROGAK (*)**

Jainkoa badela gauza ziurra da. Gizakia hori ulertzera irits daiteke, arrazoiaren mundu fisikoaz dugun ezagutzatik abiatuta (zeharka, ez zuzenean, ezagutuko du Jainkoaren existentzia). Esperientziatik hasi, bai, baina arrazoibide lan luzeagoaren bidez iritsiko gara beraren existentzia ziurtatzera. Horregatik hauek froga baino “bideak” dira.

Jainkoaren existentzia frogatzen du bost bide ospetsuren bitartez, eta ez dira Antselmo Canterburykoaren proba ontologikoarekiko analogoak, ordura artekoak berak egin baitzituen. Antselmoren argumentu ontologikoa “*Jainkoak, hobezina bada, nahitaez existentziaduna behar du izan*” (aurrez onartzen du frogatu nahi duena).

Probak. Bost bideak.

- Izaki naturalen **higidura edo aldaketa**: Ezer ez da berez aldatzen/mugitzen eta aldatzen den izaki oro, beraz, beste batek higidarazten du (katean), infinitura jarraitu ezinean, lehen eragilea bada, Jainkoa. (Aristotelesen lehen motorea).
- **Kausa** arazlearen ordena: Ezer ezin daiteke izan bere buruaren kausa. Kausa eta efektuen katean ezin da infinituraino joan. Kausa arazle guztien jatorria Jainkoa da (lehen kausa).
- Izaki naturalen **izaera kontingentea (aldibatekoa)**: Mundu naturalean dena da aldi batekoa, hasiera bat eta bukaera bat duena. Dena hala balitz, honezkero bukatua zen mundua. Halakoa ez den zerbaitek (amaigabea, alegia) sortarazten ditu gauak desagertu ahala. Hori da Jainkoa.
- **Perfekzio-mailak**: Guk gauzak etengabe konparatzen ditugu haien alde txar eta onak baloratuz. Hori ezingo genuke egin “hobezinaren” erreferenterik ez bagenu. Mundu naturalaren perfekziorik ez dagoela sumatzen dugu “izaki perfektuaren” ideia dugulako. Hori da Jainkoa.
- **Unibertsoaren helburua**: izaki naturalaren mundua ez da kaotikoa. Nabarmen da antolamendu hori ez zaiola txiripari zor, atzean norbaitek nahita egindako asmoa dagoela. Norbait hori Jainkoa da.

Jainkoa zer eta nolakoa den jakitera iristeko lehen hurbilketa “nolakoa ez den” pentsatuz egin genezake: mundu gauza guztiek dituzten perfekzio ezak eta mugak ez dituen da Jainkoa. Aldiz, mundu honetako gauzetan ezagutzen ditugun eta imajina genitzakeen alderdi positibo denak, mailarik gorenean bilatzen dituen da Jainkoa.

ERRENAZIMENTUA ETA ARO MODERNOA EUROAPAN

1. ERRENAZIMENTUA

Balio grekoerromatarretara itzultzea proposatu uen mugimendu kulturala izan zen (XIV-XVI). Antzinako garai horretara itzultzearen helburua ez zen hura erreproduzitzea baizik eta aldaketarako baliatzea (Erdi Aro ilunetik ateratzeko), hau da, gizakiaren berritze eta eraldatzea bilatzen zen. Errenazimendua berriro sortzea izan zen.

Eskuizkribu zaharren berreskuratzea egon zen. Atzean, egoera sozio-ekonomiko politikoa zegoen (monarkiaren jarrera Elizaren boterearekiko, merkataritzaren goranzkoa, burgesia kultu sendoa...)

Jakintzaren hedapena bultzatu zuten akademia eta ikastetxe independenteen loratzearekin.

1.1. Humanismoa

Gaur egun "humanismo" adierarekin ulertzen dena da gizakiaren balioa, duintasuna eta berriazko berezitasuna nabarmentzen duen jarrera filosofikoa.

Errenazimentuan iragan klasikoa haren berezko errealitatearekin berreskuratu nahi izan zuten. Horren adibidea da Petrarka eta Nikolas Kusakoa erakutsi zuten interesa jatorrizko eskuizkribuak berreskuratzeko.

Orokorrean intelektual konprometituak ziren gai sozio-ekonomiko-politikoetan eta garaiko arazoetan parte hartzen zuten.

1.2. Antropozentrismoa

Erligioaren eragina apaltzearekin batera, gizakia bere buruaren jabe sentitzen hasi zen, bere bizitza inoren laguntzarik gabe gidatzeko gai. Erdi Aroko gizakiak apaltasun osoz onartzen zuen kosmosaren ordena, kosmosa Jainkoaren kreazioa zela sinesten zuen eta Jainkoa unibertsoaren erdigunetzat zuen (teozentrismoa). Errenazimenduan, aldiz, gizakia bera zen munduaren ardatz eta bere patuaren jabe. Ezaugarri aipagarrienetako bat individualismoa da.

Erabateko konfiantza ezarri zen arrazoian, eta horixe izan zen erabakiak hartzearen irizpide nagusia (arrazoien autonomia eta tradizio- eta autoritate-irizpideen bazterketa). Bestetik, gizakiaren sentimenduak eta sena goraipatzen ziren. Paganismoaren berreskuratzea egon zen neurri batean.

Azkenik, unibertsoari buruzko jakin-min zientifikoa indartu zen. Horrela, Natura ikergai bihurtu zen, eredu baitzen giza ekintzarentzat.

1.3. Zientzia iraultza

Unibertsitateak gainbeheran zeuden. Horregatik, unibertsitateek ezin zuten zientzia- eta filosofia-korronte berririk asmatu. Korronte horiek akademietan sortu ziren. Ekarpen nagusiak:

a) Ptolomeoren sistemaren deuseztapena.

Kopernikok Eguzkia unibertsoaren erdian dagoela frogatu eta heliozentrismoaren defendatzaile bihurtu zen; Galileo bat zetorren heliozentrismoarekin. Aristoteles kosmologiaren kontra zegoen.

b) Unibertsoaren sorrera

“Lurraren” berezitasuna auzitan. Aristotelesekin unibertsoa mugatua zela zioen. Aldiz, Giordano Brunoren arabera, unibertsoa mugagabea zen. Galileok Esne Bidea aurkitu zuenean, beste mundu batzuk izatea ere posiblea zela pentsatzeko aukera zabaldu zen.

c) Natura-legeak

Aristotelesen ustez, ezin daiteke matematikaren bitartez fisika aztertu, unibertsoko objektu fisikoak aldakorrek direlako; matematikaren zenbakiak, aldiz, aldaezinak dira. Kleperrek lege matematikoak erabili zituen planetaren inertzia azaltzeko. Galileo penduluaren lege matematikoa eta inertiaren legea aurkitu zituen.

Ondorioz, unibertsoa Jainkoaren laguntzarik gabe bere kabuz dabilen makina beten antzekoa da.

d) Metodo zientifikoaren sorrera

Esperimentazioak garrantzi handia zuen. Garai horretako aurkikuntzak autoritate-irizpideari uko egiten dion arrazoiaren emaitzak dira.

e) Beste asmakizun batzuk

Asmakizuna: teleskopioa, kartografia, bolbora eta bereziki inprenta (jakintzaren demokratizazioa).

2. MAKIABELOREN PENTSAMENDU POLITIKO-FILOSOFIKOA: ERREALISMO POLITIKOA

Zientzia Politikoaren sortzailetzat hartzen da. Bilatzen dena da ekintza politiko hutsa: autonomia eta sinplea. Eraginkorra bada balio du, bestela ez. Boterea, indarra eta dirua dira politikaren giltzarria.

Gizakion jokaera aurreikusgarria da, iraganari begiratuaz. Horrekin jokatu behar du politikoak. Helburu horretara begira, tresna indartsua da erretorika.

Edozein baliabide zilegi da bilatzen dugun emaitzara eramaten bagaitu: “balio duena emaitza da”.

Politikan arituko denak zenbait dohai behar ditu: zailtasunei aurre egiteko gaitasuna, zoria, gezurretan aritzeok trebezia, amoralia izatea...

Gobernatzeko formarik hoberena errepublika da. “Askoren gobernu hobe da gutxiarena baino”. Hala ere, salbuespen gisa eta anabasa gainditzeko bekarraren agintea ere izan liteke egokia.

3. ARRAZIONALISMOAREN EZAUGARRIAK (*)

- **Subjektua** da jarduera ororen erdigunea, eta hark erabakitzen du gertaera edo baieztapen ororen egiazkotasuna edo faltsutasuna.
- **Konfiantza arrazoian.** Ezagutza-iturri garrantzitsuena arrazoia da, baliozko ezagutzak sor ditzakeen bakarra. Arrazoian, esperientziatik sortu ez diren jatorrizko ideiak daude.
- **Ezagutza sentikorraren gutxiespena.** Sarritan zentzumenek huts egitera bultzatzen gaituzte, eta ezagutza sentikorra ezin da unibertetsala izan.
- **Zientzia unibertetsal eta beharrezkoaren nahitaezkotasuna.** Zientziaren judizioek baliagarriak izan behar dute kasu guztietan, eta nahitaezkoa da hori. Horrelako ezaugarriak ez duen zientzia ezin daiteke baliozkoa izan.
- **Munduaren arrazionaltasuna.** Unibertetsoko gertaera orok justifikazio bat du, kausa bat. Honetan datza hain zuzen arrazionalismoaren ekarpena, kausa hori ezaugarria da arrazoiarentzat, eta haren kabuz ezagut dezake.
- **Matematika** da jakintza arrazionalaren eredu.

- **Mekanizismoa:** unibertsoa makina erraldoi bat da, eta bertan gertatzen diren mugimendu guztiak tresna mekaniko batenak bezalakoak dira. Ez dago ezkutuko indarrik eta errealitate fisikoaren fenomeno guztiak printzipio mekanikoen bitartez azal daitezke.

4. DESKARTES: METODOAREN ARAUAK

Deskartesek lau arauk osatutako metodoa erabiltzen du, bai gogoeta filosofikoetan bai ikerketa matematikoetan.

a) Lehen araua: nabaritasuna edo ebidentzia

“Ezer ez daiteke egiazat har, nabaritasun osoz horrela dela dakigunean izan ezik”. Nabaritasunak bi ezaugarri ditu: argitasuna eta bereizkortasuna. Argia izateko, banandua eta nahasia izan behar du, eta bereizia izango da haren zatiak elkarren artean bananduta badaude.

b) Bigarren araua: analisisa (intuizioa)

“Aztertzen dugun zailtasun bakoitza ahalik eta gehien zatitzea, soluzio onenak eska lezakeen moduan”. Deskartesek ustez, ezagutzak egiazko ziurtasuna eskuratu nahi badu, soilatik hasi behar du. Zatiketak intuizioz hautematen diren “natura soilak” lortzea du helburu. Intuizioa, Deskartesek arabera, espirituaren hautemate soilak eta berehalakoa da, eta ez du zalantzarako tarterik uzten, hain da bereizkorra eta erraza.

c) Hirugarren araua: sintesia (dedukzioa)

Metodoaren hirugarren araua dedukzioaren eta sintesiaren araua da. “Nire gogoetak ordena batekin zuzentzea, objektu soiletatik eta ezagutzeko errazenetatik hasiz, apurka-apurka konplexueneraino iristeko, eta, beraz, horrela jokatzeko aukera ematen ez digutenean artean ere ordena bat proposatzeko”. Dedukzioak ez du intuizioak beste ziurtasunik.

d) Laugarren araua: berrikusketa edo zerrendaketa

“Horretan guztian oso zerrendaketa konplexuak eta oso berrikusketa orokorrak egin behar ditugu, ezer ez dugula ahaztu ziur egon arte”. Hutsunez ohartaraztea da.

*

→ Zalantza metodikoa (duda egitea denai buruz) → Pentsatzen dut beraz banaiz (atera ezinik geratu da. Heldu leku bat behar du kanpoan Deskartesek)
→ Jainkoaren ideia dut (abiatzen da) → Jainkoa bada → Jainkoa egiazlea da → Mundua bada

5. SPINOZA: PENTSAMENDU POLITIKOA

Gizakiak berez duen izanagatik beste gizaki batzuekin batera era antolatuan elkartu behar da kaosa eta anarkia saihesteko. Gizaki guztiok berezko bulkada dugu geure burua kontserbatu eta, alde horretatik, eskubide naturala dugu iraunarazteko balio digun edozein bitartekoz baliatzeko. Gizakiak “elkarren etsaiak izaten gara”. Gizakiok beharrezkoa dugu hitzarmenak egitea ahalik eta seguruen elkarrekin bizitzeko. Gizarte hitzarmena sortzen dituen murrizketak justifikatzen dira onurak handiagoak direnean naturazko egoeren arriskuak baino.

Gobernatzeko era guztien artean naturalena eta ondoen datorrena norbanakoaren askatasunarekin demokrazia da. Gizaki guztiek jarraitzen dute berdinak izaten.

Era arrazionallean antolaturiko gizarte baten ezaugarri bat tolerantzia erlijiosoa da. Edozein sinesmenek defendatzen dituen jokabideek libreak izan behar dute, baldin eta gizartearen ongizaterako kaltegarriak ez badira. Gobernuaren benetako helburua askatasuna da. Pentsamenduaren askatasun osoa e da ezabatu behar. Spinozaren arazoa da ahalik eta askatasun handiena eta ongizate publikoarekiko kezka uztartzea.

ILUSTRAZIOA

1. ENPIRISMOA

Enpirismoa XVII.-XVIII. mendeetan Britainia Handian bereziki garatu zen filosofia-korrontea izan zen. Locke eta Hume dira egile aipagarrienak.

Enpirismoa ingelesari buruz hitz egiten dugunean, arrazionalismoa kontinentalaren kontrako korronte gisa agertzen zaigu. Bientzat, ezagutzaren helburua ideiak dira, baina arrazionalistentzat jatorrizko ideiak diren bitartean, enpiristentzat ideia oro esperientziatik eratorriak dira. Esperientzia aipatzen dugunean kontuan hartu behar ditugu bai kanpoko esperientzia eta bai barrukoa.

Enpiristek zientzia fisikoaren eredia dute, eta metodo idealtzat metodo induktiboa.

Enpirismoaren ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

- Esperientzia da ezaugarriaren iturria. Adimena esperientziako edukien bitartez bete behar den “arbol hutsa” da..
- Esperientzia bera da giza adimenaren muga.
- Ezagutza oro ideien ezagutza da.
- Arrazoia arrazoi kritikoa da eta eduki metafisikoak, arrazoiaren mugetatik kanpo daudenez, ezagutezinak dira.

2. ETIKA LOCKE ETA HUMEREN ARABERA

2.1. Lockeren arabera

Locke, bere teoria morala garatzean, enpirista da. Ongiari buruz zein gizakiari buruz gizakiak dituen ideiak, esperientziaren bidez bereganatzen dituela dio filosofo horrek.

Ez dago, beraz, gizabanakoarengan grabaturik inolako lege naturalik. Adostasunak edo adostasun ezak plazera edo mina sorrarazten dute.

Gizakiak ongiari eta gizakiari buruz dituen ondorioak enpirikoak dira, esperientziatik eratorriak direlako; baina, aldi berean, unibertsalak dira, lege naturala aurkitzera eramaten gaituztelako eta lege hori gizaki guztientzat baliagarria delako.

Lege zibila giza erakundeari dagokio.

Irtziaren legeak bertutearen eta bizioaren arau aldakorak ematen ditu.

2.2. Humeren arabera

Humek morala giza naturan oinarritu nahi du, eta horra jotzen du zer den ona eta zer den txarra galderei erantzuteko; gai moralak gizabanakoaren bizitzarako erabakigarriak baitira eta gizartearen bakea jokoan jartzen dute.

Moral arrazionalistari kritika egiten dio Humek.

Arrazoimena ez da alderdirik garrantzitsuena etikaz ari garenean, arrazoimenak bere kabuz eta bakarrik ezin baititu identifikatu propietate moralak edo balio moralak.

Sentimentalismo morala. Ona edo txarra, arrazoimenetik ez datozenez, soilik sentimenetik sor daitezke. Eta, horrela, moralitatea gehiago da sentimendua arrazoitua baino.

3. ILUSTRAZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

XVIII. mendean oinarri naturalei erreparatuta. Ilustrazioa izena hartzen zuen. Gizakiaren pentsamendu transzendentalaren eta metafisikoaren balioa zorrotz epaitu zuten. Formulazio mekanizista eta materialista garbiak agertzen dira gizakiari eta gizarteari buruz, bizitza-estilo bat ordezkatu uten, erlijioan oinarritzen zena; eta horren ordezkari munduari buruzko ikuskera tradizional eta laikoa finkatzen hasi ziren.

Ez da filosofia zehatz bat baizik eta jarrera bat. Jarrera hori Kanten “ausartu zaitez pentsatzera” hitzekin laburbildu daiteke.

Ilustrazioaren ideiak Ingalaterratik, Frantziatik eta Alemaniatik hedatuko dira XVII. mendearen erditik hasi eta XVIII. mendera arte.

- a) **Baikortasuna arrazoiaren eredu berrian:** gizakiaren arrazoiari autonomia (arrazoi autonomoa) ematen zaio, arrazoiak da gizakiaren gidari bakarra, kanpoko eta gorengo autoritatetik aske dagoena.
- b) **Natura funtsezko iturri gisa:** natura abiapuntu eta erreferentzia-puntu garrantzitsua da ilustratuentzat.
- c) **Aurrerakuntzaren ideia:** aurrerapen zientifiko-teknikoek munduari buruzkoa ikuskera baikorra ematen diete ilustratuei.
- d) **Tolerantzia erlijiosoa:** tolerantzia, erlijioaren analisi arrazionala egiten da, eta horrela erlijio berri bat sortu, arrazoiarekin ados dagoena: erlijio naturala.

Bi interpretazio ditu:

- **Deista:** Unibertsoaren sortzailea den Jainko batengan sinesten dute.
 - **Teista:** Jainkoa sortzailea eta aurreikuslea da, hots, mundua kontrolatu eta gidatzen du.
- e) **Askatasuna:** pentsamendu askea eta adierazpen-askatasuna ezinbesteko baldintzak dira arrazoiaren erabilera publikoa ahalbidetzeko.